

Fernandez Duran: «Epe ertainera AHTk trenbidearen heriotza ekar lezake»

Ingeniari ekologistak gai honi buruzko zehaztasunak eman ditu Bilbon

Ramon Fernandez Duran ingeniari eta ekologista madrildarrak Eki talde ekologistak antolatutako hitzaldi batean parte hartu du Abiadura Handiko Trenaz (AHT) eta 'Euskal Y-aren' proiektuaz eztabaidatzeko. Fernandez Duranek auzi honi buruzko zehaztasunak eskaini ditu Euskal Herrian.

INAKI BARCENA / BILBO


EGUNKARIA.— Zergatik daude oposizioan trenbidearen modernizazioa eta AHTren plangintza berriak?

RAMON FERNANDEZ DURAN.— Madrileko Gobernuak AHTren eraikitzearekin trenbidearen suspertze eta indartzearen mezua zabaldu zuen, trena garraibide modura alboratuta baitzegoen, bere ustez. Baina 87-88 urteetan lauzpabost bider gehiago inbertitzen zen errepideetan trenetan baino. 1991ko inbertsioen kopuruak kontuan hartuz zera ikusten dugu: administrazio guztiek 600.000 milioi pezeta (30.000 milioi libera) inbertitu dituztela errepideetan. Trenbideetan, aldiz, 150.000 milioi pezeta, baina haietako 100.000 Madril-Sevilla AHTri zuzendu dizkiote. Trenbide berri honek 450.000 milioi kostatzen du eta bost urteko lanetan, urtean 100.000 milioi inguru jarri behar ziren.

Orduan Espainia osoko trenbideentzat 50.000 milioi gertatzen ziren, baina kopuruaren analisi zehatzagoa eginez gero, askoz gutxiago aurkitzen dugu, zeren kopuru horren parte bat hiriburu handien inguruneke trenentzat bideratua zen eta tren sistema konbentzionalaren errehabilitazio eta modernizaziorako, hiriburuaren arteko trenentzako alegia, 20.000 milioi pezeta besterik ez zen.

Honek esan nahi du 1-10 edo 1-20 erlazioan sartzen garela, trenbidea eta errepideen artean, zein datu hartzen ditugun. Trenbidearen sendotzearen irudia transmititu nahi zuten AHTren sorrerarekin eta honek, aldiz, trenbidearen heriotza posiblea

✓ Administrazio guztiek 600.000 milioi pezeta inbertitu dituzte errepideetan. Trenbideetan aldiz, 150.000 milioi, baina horietatik 100.000 AHTn.



Kritikoa agertu da Fernandez Duran AHTren inguruan. XOUSE SIMAL

ekarriko du epe ertainean.

EGUNKARIA.— Zergatik heriotza posible hau?

FERNANDEZ DURAN.— Begira, 12.000 kilometrotik 700 oinarritzko sareari dagozkio. Hemen zerbait inbertitzen da, mantentzearen funtzionamendurako bideak 20 urteko epean berrituz egin behar dira eta hori ez da egiten dirurik ez dagoelako; baina beste 5.000 kilometro horietan, bigarren sarea diotenean, degradazio izugarria gertatzen da.

Halaber, 1984-1991 urteen epean inbertsio erraldoiak egin dira errepide eta autobideetan. 2.600 kilometro berri egin dira Espainia osoan. Gaur egun askoz merke eta azkarragoa da orokorrean autobusean ibiltzea Renfen baino. Trena gustukoa daukat eta nola penintsula iparrarekin lotzen duten trenen aukera gero eta

murritzua daukagunez, Medina del Campora joan behar izan dut, eta han ordubete itxaron.

Trenbidea ez da konpetitiboa. Garestia goa da eta denbora gehiago ematen duzu. Honek eragin zuen 60-70etako hamarkadetan gertatu zena: trenbideak merkatu kuota galtzea, merkantzia eta bidaiariak. Egun, trenbideak bidaiari/km. guztietatik % 7 bakarrik garraiatzen du. Gainontzeko guztiak errepideetatik doaz. Eta merkantzien alorrean, % 5 soilik.

Europa osoan trenbideak merkantzien % 15 eramaten ditu, hau da batez besteko kopuruan hiru bider gehiago. Eta horrela, diru galera franko izan dira, noski. Zerbiztu eta langileen murrizketa bururatu zaie gauzak aldatzeko. 80ko hamarkadaren erdian Renfek 80.000 langile zituen eta gaur 47.000. Hamar urtean bere

plantila erdira jaitsi da.

Orduan, azkenengo bost urteotan, AHTn urtero inbertitutako 100.000 milioi pezeta horiek (Madril-Sevilla) eta errepideetan gastatukoaren parte bat, Espainia osoko trenbidearen sarera bideratu izan balitz, seguruenik trenbideak merkatu kuota garrantzitsu bat izango zuen, ez oraingo egoera kaskarrak adierazten duena.

EGUNKARIA.— Dakigunez oso konpetentzia gogorra ari da sortzen Japonia, EEBB eta EKren artean orokorrean, baita enpresa berezien artean ere, AHTren teknologiak merkatura eramatekoan. Nolakoa izan da Espainia-ko Gobernuaren jokabidea?

FERNANDEZ DURAN.— Bruselatik presio izugarriak izan dira ingeles General Electric, frantsesen Alston eta alemanen Siemensekin batera partzuergo europarra osatzeko. Baina Gobernu espainolarena erabaki salomonikoa izan zen. Madril-Sevilla AHTren 24 adar horiek Alston enpresa frantsesari adjudikatu zitzaizkion, bide batez Iparraldeko egoera aldatzeko gogoaz. Corcuera esan zuenez, berak kontratu osoa emango zien frantsesei tren horiek 'terroristez' beterik etorriko balira.

Kanpoko teknologiak erabiltzea hankasartze bat da, baina are irrazionalagoa da zabalera europarrarekin egitea. Espainiako egitura ia osoak Renferen zabalera dauka eta Madril-Sevilla AHTren zabalera europarrekoa denez, tren berri horiek gainontzeko sarea ezin dute erabili.

EGUNKARIA.— Euskal AHTn, nola nahasi dira interes ekonomiko eta politikoak?

FERNANDEZ DURAN.— Madrileko komunikabide berezituetatik zera entzun dugu, 'Corcuera legea' aurrera ateratzeko EAJ eta CiUren laguntza oso beharrezkoa zela. Azken hauek Kongresuan aldeko botoa emateko lege honi, AHTren plangintzak bermatu nahi izan dituzte Katalunian eta Euskal Herrian, hori hor dagoela, baina dirurik ez...

Krisialdi ekonomikoaren garaian gaude eta administrazio guztiek nahi dute dirutza publikoa bereganatu.



Ramon Fernandez Duran ingeniari eta ekologista.

XOUSE SIMAL

✓ Trenbidearen sendotzearen irudia eman nahi zuten AHTren sorrerakin baina trenbidearen heriotza ekar lezake epe ertainean.

Alegazioen ondorioz 500 etxebizitza gehiago Bilbon

G. AGIRRE / BILBO



Bilboko Hiri Antolakuntzarako

Plan Orokorrari aurkeztu dizkieten 500 alegazioetatik erdiak baino gehiago aintzat hartu ditu Udalak. Ontzat hartutako alegazioen ondorioz, zerbiztuen sektorerako bideratutako orubeak murriztu egingo dira eta horren ordez, etxebizitza berriak eraikiko dituzte.

«Aurkeztu eta ontzat emandako alegazioen ondorioz 140.000 metro karratu orube ez dira zerbiztuen sektorerako izango. Aurreko Plangintza Orokorrarekin parekatuz Bilbon 500 etxebizitza berri eraikiko dira», azaldu zuen atzo Mikel Ocio Hiri Antolakuntzarako Plangintza Orokorrako Bulegoko burua. Plan Orokorrak Bilbon 13.500 etxebizitza berri eraikitzea aurriztatu du. Aldaketa hauei esker Plangintza Orokorrak «gaur eguneko merkaturaren errealitateari hobeto» erantzuten diola azpimarratu zuen Areso Hirigintza zinegotziak. Plan Orokorrak, Aresoren hitzetan, behin-behineko onarpena izango du ekainean.

Donostian hiru baso galduko direla salatu du Eguzkik

DONOSTIA



Bertoko landare-tzaz osatutako hiru baso galtzeko

arriskuan egon daitezke Donostiako Igara auzoan, Eguzki talde ekologistak salatu berri duenez. Izan ere, Donostiako Udaleko Gobernu Batzordeak harriera ona egin dio inguru horretan aisialdi eta kirol zentro pribatu bat eraikitzen proiektuari eta «gizartearentzat interesgarria» dela erabaki du.

Eguzkiren arabera, 40.000 metro karratu hartuko ditu aipatu kiroldegia eta orain arte urbanizatzeko debekua zegoen lurretan egingo da. Proiektuaren arabera galduko diren hiru basoak, babestutako landaretzaz osatutakoak dira. Hori dela eta, Udalak hartutako erabakia atzera botatzeko eta lur zati hori ez urbanizatzeko eskatu du Eguzkik.